



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea, S.A. (Surbisa)

**Uretamendi auzoan birgaitze efizientea eta irisgarriko proiektu teknikoak idazteko eta espazio pribatuetan birnaturalizazio esku-hartzeak burutzeko dirulaguntzen bidez osoko hiri berroneratze proiektua garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak. 2025-2026 urteak.**

2025eko martxoaren 18an, Surbisako Administrazio Kontseiluak Uretamendi auzoan hiri-berroneratze integraleko proiektua garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu zituen, dirulaguntzen bidez, birgaitze eraginkor eta irisgarriko proiektu teknikoak idazteko eta espazio pribatu degradatuetan birnaturalizatzeko esku-hartzeak egiteko, 2025 eta 2026. urteetan, ondorengo eduki honekin:

Bilbon, 2025eko martxoaren 25ean.—Surbisako Presidentea, Jon Bilbao Urquijo



**URETAMENDI AUZOAN BIRGAITZE EFIZIENTEA ETA IRISGARRIRAKO PROIEKTU  
TEKNIKOAK IDAZTEKO ETA ESPAZIO PRIBATUETAN BIRNATURALIZAZIO  
ESKU-HARTZEAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZEN BIDEZ OSOKO  
HIRI BERRONERATZE PROIEKTUA GARATZEKO DIRULAGUNTZEN  
OINARRI ARAUTZAILEAK. 2025-2026 URTEAK**

ZIOEN AZALPENA

Bilboko Udalbatzak, 2023ko otsailaren 23an eginiko saioan, Surbisaren jarduketa eremua Uretamendi auzoko 202 bizitegi-eraikinetara zabaltzea erabaki zuen, bertan sartzen direlarik Uretamendi, Betolaza auzoak eta Ingurubidea Errepidea, zeinetatik 143 Uretamendiko Degradatutako Eremu deritzona osatzen duten orain.

Auzo honen hirigintza beharriaz emateko, 2022ko abenduaren 27an, Bilboko Udalak zuzeneko dirulaguntza lortu zuen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailerik Uretamendin Osoko Hiri Berroneratze Jarduketak burutzeko; horren ondorioz, auzoan Opengela bulegoa zabaldu zen, egoiliarrei euren etxebizitzak birgaitu eta kontserbazio, iriste erraztasun eta energia efizientziako baldintza egokiak lortzeko xedez, laguntza, informazioa eta akonpainamendua eskaintzeko.

Nahiz eta Surbisak dagoeneko badituen bizitegi-eraikinak birgaitzeko hainbat dirulaguntza, egia esanda, Uretamendi auzoan, neurri handi batean bertako egoiliarren kalteberatasun ekonomikoa dela eta, zailtasuna nabaritu da bizitegi-eraikinak Jabekideen Elkartek energia efizientzia eta iriste erraztasuna hobetzeko lanei ekiteko interesa sortzeko garaian. Hori dela eta, jarduketa horiek sustatzeko neurriak ezartzea komeni dela ikusi da, esaterako, beharrezko lanak egikaritzeko proiektu baten idazketa kontrata dadin lortzea eta hobekuntzakoak ere barruan sartzea, hots, iriste erraztasuna, isolamendu termikoa, instalazio energetikoak eta halakoak. Horrela, Jabekideen Elkartek igogailu bat jartzeko bideragarritasuna zein den jakingo lukete, bai eta hobekuntza eta obren kostuen zenbateko zehatzagoak ere; horrela, jarduketa horiek gauzatzeko beharrezkoak diren adostasunetara iritea erraztuko litzateke. Sustatze horrek, familia errenta Lurralde Historikoaren era hiriaren batez bestekoaren aldean nabarmen txikia den populazio batean, proiektu horiek ordainduko dituzten dirulaguntza publikoen deialdia behar du. Behin proiektu tekniko horiek lortuta jarraitu beharreko estrategia zuzenean Auzo Batzordeetan erakustea da, jabeek euren eraikinaren diagnostikoa eta beharriazko ezagutu eta bertan ezar daitezkeen hobekuntzen kostua eta dauden laguntzak zein diren jakin dezaten. Horri guztiari esker, eraikinak beharrezko segurtasun baldintzetan mantentzeko behar-beharrezkoak diren lanez gain, obra handiagoak egikaritzeko akordioak lortzeko finantzazio egoki bat ezarri ahalko da.

Horregatik, Oinarri hauen bidez, aitzinean aipatutako jarduketak barnean hartzen dituzten obra proiektuak idaztea sustatzea da asmoa, zertarako eta egikaritze kostuak eta horietakoren bati ekiteko erabakia hartuz gero lor ditzaketen laguntzen zenbatekoak zein diren zehatzago jakiteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Udalarri zuzenean emandako dirulaguntzaren xede den Osoko Hiri Berroneratze proiektuaren helburuen artean dago «espazio publiko eta pribatuen birnaturalizazio esku-hartzeak sustatzea». Ildo horretan, hobetzeko duten beharrik «Aukera Espazioak» deritzen zenbait espazio pribatu identifikatze lanetan eta euren erabilera handitu eta birnaturalizazioa sustatu da, beroietan eta antzeko beste batzuetan kalitatezko soluzioak planteatu ahal izateko eta auzoaren ingurune fisikoa berriro egokitzeko; izan ere, horrek lagundu egiten du komunitatearen ahalduntzean eta kohesio sozialean.

Jarduketa horiek sustatzeko, honako dirulaguntza hauek definitu dira; batera finantziatuko dira, bizitegi inguruneetan erabiltzen ez diren espazioen edo modu okerrean erabiltzen diren edo utzita dauden espazioen birnaturalizazio esku-hartzeak deiturikoak. Horretarako, jarduketa berdeak eta naturalizatzeak ezarriko lirateke, bai ingurumen helburuak lortzeko, bai mantenimendu eta erabilera arazoak dituzten espazio degradatuak, edo prozesu horretan daudenak, bere onera ekartzeko, hots, espazio natural bihurtuko dira denon onura, erabilera eta gozamenarako.



Jarduketa horiek Hiri Berroneratze integral eta jasangarrirako Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planean (PIIE 22-24) jasotako ekintzen artean sartzen dira. Zehatzago esanda, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda Sailburuordetzak Uretamendirako dirulaguntza ematean adierazitako helburuak lortzera bideratuta dago, eta horrela berretsita dago dirulaguntzaren zertarakoari buruzko 2024ko azaroaren 11ko txostenean.

Azkenik, sustatze jarduketa hauek Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat egiten dute, hots, Txirotasun Energetikoaren Amaiera, Osasuna eta Ongizatea, Arrazoizko energia eta ez kutsadura, Hiri eta erkidego jasangarriak, Klimaren aldeko Ekintzarekin eta, bestalde, Bilboko Balioen Agiriko Balioekin ere bat egiten du, zehazki, Ingurumenaren arloko Jasangarritasunari, Konpromisoa eta Erantzunkidetasunari nahiz Osasunari dagokionean.

### **BIRGAIATZE EFIZIENTE ETA IRISGARRIRAKO PROIEKTU TEKNIKOAK IDAZTEKO DIRULAGUNTZAK**

#### **Lehena. — Xedea**

Oinarri hauen xedea da Hiri Berroneratzearen Sailak, Subisaren bitartez, Betolaza auzoko, Uretamendi auzoko eta Ingurubidea Errepideko bizitegi-erakinek euren iriste erraztasuna eta energi birgaitzea sustatzeko proiektu teknikoak kontratatzeko onetsi eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak lortzeko betekizunak arautzea.

Laguntza horrekin, beraz, Jabekideen Elkarteei ahalbidetu egiten zaie, Elkarte horietatik kosturik gabe, eskumena duen profesional batek eginiko Energi Birgaitze Edota Iriste Erraztasuneko proiektu tekniko bat lortzea.

Behin proiektu teknikoak eskuan, balizko birgaitze lanetarako Dauden Laguntzen Kalkulua egingo zaie. Kalkulu hori Surbisa-k egingo du, Uretamendiko Opengelaren laguntzaz (Kudeaketa eta Hurbiltasuneko Bulego Teknikoa).

#### **Bigarrena. — Onuradunak**

Bilbao udalerriko jabego pribatuko familia askotako bizitegi-erakinetako Jabekideen Elkarteek eskatu ahalko dituzte oinarri hauetan jasotako laguntzak, edo elkarte horietatik sortutako taldeek, baldin-eta uztailaren 21eko Jabetza Horizontalari buruzko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz formalki hala eraturakoak eta, beraz, Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritako funtzionamendu arauetara egokitzen badira.

Oro har jarduketa guztietarako, jarduketa babesgarrien onuradunek ordainduta izan beharko dituzte Udalarekiko edota Surbisarekiko betebeharrak ekonomikoak eta urbanistikoak, bai eta euren betekizun sozial eta fiskalak ere, bai dirulaguntzak aitortzeko unean bai ordaintzerakoan ere.

Ez zaizkie laguntzak aitortuko beste espediente batzuetan –hirigintzakoetan nahiz Surbisak tramitatutako laguntzetan- euren betebeharrak bete ez dituztenei, eta ezingo dira zor horiek konpentsatu balizko laguntza berri hauekin.

#### **Hirugarrena. — Eraikinek dirulaguntzak jasotzeko bete behar dituzten betekizun orokorrak**

Dirulaguntzak lor ditzaketen eraikinek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) Higiezinaren erabilera nagusia egoitzakoa izatea. Eraikinean etxebizitza erabilera lehentasunezko hartzeko, guztizko azalera erabilgarriaren %70ek, gutxienez, etxebizitzarako erabilia izan beharko du, beheko solairuaren azalera zenbaketa horretatik salbuetsita.

Oinarri hauetatik kanpo geratzen dira familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza eraikinak.

- b) Eraikinaren antzinakotasuna hamar (10) urtekoa edo gehiagokoa izatea.



- c) Bizitegi eraikina denean eta 50 urte baino gehiago dituenean, dagokion Eraikinen Azterketa Teknikoa (EAT) aurkeztua izatea, Eusko Jaurlaritzak EATak kudeatu eta erregistratzeko gaitutako plataformaren bitartez. Honako hau da plataforman sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/euskoregite>.
- d) Jarduketek behar bezala elkartutako jabekideen elkartearen adostasuna izatea.
- e) Batzar bat egiteko konpromisoa hartzea, zertarako-eta, behin proiektua idatzi-ta, ondorioak, kostuak, laguntzen zenbatesteak eta eman beharreko hurrengo urratsak aurkezteko, baldin-eta proiektuaren egikaritze osoa edo zati batekoa aurrera eraman nahi badute.

**Laugarrena. — Diruz lagundu daitezkeen proiektuen betekizunak**

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak lortzeko, kontratatutako proiektu teknikoetan, gutxienez, oztopoak kentzeko eta igogailu irisgarria instalatzeko beharrezko jarduketa guztiak jasoko dira, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan ezarritakoarekin bat eginez, zeinen bidez iriste erraztasun baldintzei buruzko arau teknikoak onesten diren edota, egungo egoerari dagokionez, eraikinaren adierazle globalaren aldean %30 baino altuagoa den isurketa-murrizketa lortzeko xedez eraikinaren ingurutzailan egin beharrezko esku-hartzeak ere bai, gutxienez D letradun adierazle globala lortuko delarik.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, proiektuan sartuko dira eraikin bakoitzak laguntzak eskatzeko egunean indarrean duen EITa betetzeko beharrezko jarduketa guztiak.

Proiektu teknikoaren xedeak ondoren adierazten diren jarduketa nagusietako bat edo biak aipatuko ditu:

1. Eraikinean jarduketak burutzea etxebizitzetarako Iriste erraztasuna bermatzeko; horien artean daude igogailuak jartzea, arrapalak edo beste edozein jarduketa burutzea kale-mailatik haietara iristeko, 68/2000 Dekretuaren arabera iriste erraztasun irizpideak beteta (lehentasunez), edo iristeko ahalmeneko irizpideak jarraituta (baldin-eta iriste erraztasuna lortu ezin bada).
2. Urteko berotze- edo hozte-sistemen Energia eskaera murriztu dadin lortzeko jarduketak, eta lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa, energia ziurtagiriari dagokiona, ere bai. Etxebizitzak eta eraikinak birgaitu eta iriste erraztasuna eta energia efizientzia hobetzeko gaitan jarduketa babesgarrietarako finantza-neurrien programaren markoan Obra komunitarioetarako (2. lerroa) laguntza eta mailegu kualifikatuak lortzeko, honako irizpide eta helburu hauek bete beharko dira:
  - Esku-hartzeek lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa murriztu beharko dute eta, gainera, egungo egoerari dagokionez, eraikinaren adierazle globalaren aldean %30 baino altuagoa den isurketa-murrizketa lortu beharko da, gutxienez D letradun adierazle globala lortuko delarik.
  - Lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa murrizteari dagokion energia efizientzia hobekuntza lortu izanaren egiaztapena, berokuntza-eta hozte-sistemen eskaera globalarena, egokieraren arabera, eraikin bakoitzak jarduketa aurretik eta ondoren energia efizientziaren ziurtagiria egin eta konparazioa eginda burutuko da.
  - Ziurtagiri horiek, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak araututakoak, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuarekin, zeinen bidez eraikinen energia efizientziaren ziurtaginerako oinarritzko prozedura onesten den, bat egin da burutuko dira, eta ofizialki aitortutako programa informatikoren bat erabiliko da horretarako; gainera, autonomia erkidegoko organo eskudunena erregistratuta egingo dira eta teknikari eskudunek igorriak izango dira.

Jarduera nagusi horietaz gain, baldin-eta eraikinak behar badu, hauek ere sartuko dira:

- a) Egitura eta eraikuntza aldetik egokituta ez dauden eraikinetan, nahitaez, teknikari eskudun batek indarrean dauden eredu ofizialei jarraituz idatzitako Eraikinaren



Ikuskatze Teknikoak, Etxebizitzari buruzko EAeko 3/2015 Legearen 52 artikulua agindutakoak, eskatutako eta aholkatutako esku-hartzeak sartuko dira.

- b) Eraikinen saneamendu, ur-hornitze, energia elektriko, telekomunikazio, gas eta suteen aurkako segurtasun instalazioen araudira egokitu eta eguneratzea.
- c) Enpresa baimendu batek amianto-hondakinak kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzea, hala badagokio.

Aitzinean deskribatutako jarduketak Proiektu Tekniko Bakar batean sartu behar dira. Dena dela, proiektuaren jatorrian iriste erraztasun edota energia efizientzia hobetzaigatiko balizko esku-hartze bat izango da, eta horri erantsi ahalko zaizkio a) edota b) ataletan aipatutako esku-hartzeak.

Dagozkion laguntzak esleitu eta ondorengo justifikazioa egite aldera jarduketa bakoitzaren kostua egiaztatu ahal izateko xedez, proiektuek, handitasunaren arabera, ondorengo taula honetan agertzen diren ataletan egituratuta egon beharko dute.

Jarduera
BIRGAITZE ENERGETIKOA
IRISTE ERRAZTASUNA
EGITURAZKO ETA ERAIKUNTZAKO EGOKITZAPENA (EIT zuzenketak)
BIZIGARRITASUNA HOBETZEA
AMANTOIA KENTZEA
BESTE OBRA OSAGARRI BATZUK
GUZTIRA

### **Bosgarrena. — Mugak eta bateragarritasunak**

Ezingo dituzte Oinarri hauetan jasotako laguntzak eskatu beste dirulaguntza batzuen aurrekontu babesgarrian sartuak izan diren dokumentu teknikoek.

Ezingo dituzte Oinarri hauetan jasotako laguntzak eskatu higiezinan ondorengo obrak egikaritzeko oinarritzat hartu diren dokumentuek.

Ezingo dituzte Oinarri hauetan jasotako laguntzak eskatu 2024.ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kontratazioa duten dokumentuek.

### **Seigarrena. — Aurrekontu babesgarria eta laguntzen zenbatekoa**

#### **6.1. Aurrekontu babesgarria**

Aurrekontu babesgarrian sartuko dira proiektua idazteko ordainsari teknikoak, bisa kostuak, hasierako eta proiektuko Energia Efizientzia Ziurtagiriak idaztea eta dagokion BEZa.

#### **6.2. Laguntzen zenbatekoa**

Proiektu teknikoak idazteko emango diren itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak aurrekontu babesgarriaren %100era iritsiko dira, honako gehieneko muga hauekin:

- A) Iriste erraztasun eta jarduketa osagarrien proiektua: Etxebizitzako 320,00 euro.
- B) Energia hobekuntza eta jarduketa osagarrien proiektua: Etxebizitzako 500,00 euro.
- C) Iriste erraztasun, energia hobekuntza eta jarduketa osagarrien proiektua: Proiektu osoaren gehipenezko muga: Etxebizitzako 820,00 euro.

**ESPASIO PRIVATU DEGRADATUETAN BIRNATURALIZAZIO  
ESKU-HARTZEAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK****Lehena. — Xedea**

Oinarri hauen xedea da Bilbo udalerrian bizitegi eraikin pribatuen energi hobekuntzako esku-hartzeak burutzeko nahiz energia berriztagarrien erabilera sustatzeko eta jabetza pribatukoak diren eta Bilbon dauden hiri-espazio eta eraikinak naturalizatzeko eta hobetzeko jarduketetarako Hiri Berroneratzearen Sailak, Surbisaren bitartez, onetsi eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak lortzeko betekizunak arautzea.

Energia efizientzia eta aurrezpena sustatzea da xedea eta, horretarako, jarduketa hauetarako neurri ekonomikoak eta erabakiak hartzeko laguntza teknikoa eskaintzen zaie eta erabiltzen ez diren espazio pribatuetarako soluzio berdeak bilatzen dira. Horren guztiaren helburua udalerriko jabego pribatuko espazioak izan eta erabiltzen ez diren edota degradatuta daudenak birnaturalizatzeko ekintzen bidez eralda daitezzen lortzera bideratutako jarduketak bultzatzea da.

**Bigarrena. — Jarduketa babesgarriak**

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak emateko eraginetan, jarduketa babesgarriak izango dira erabiltzen ez diren edo degradatuta dauden edo aukera eraldatzailea duten hiri espazio pribatuetan eginiko obra edota esku-hartzeak, baldin-eta horiek berriro erabili eta hiri kalitatea hobetzeko, espazioak atseginagoak izan daitezzen bilatzen dituzten eta naturan oinarritutako soluzio jasagarriak ezartzen badituzte, nola-eta aldaketa klimatikora egokitzuz baliabide naturalak erabiliz, trafiko guneak oinezko bihurtuz, espazio naturala eta kalitatezkoa irabaziz edota etxadi-patioak birnaturalizatuz edo antzeko soluzioak erabiliz.

**Hirugarrena. — Onuradunak**

Uretamendi auzoan (Uretamendi, Betolaza eta Ingurubidea) gauzatu beharrekoak diren eta Oinarrien atal honetan jasotako jarduketetarako, jarduketa sustatu eta ordaintzen duten Jabekideen Elkarteek nahiz pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahalko dituzte laguntzak, beti ere, jabeen baimena izanez gero, eurena ez bada.

**Laugarrena. — Betekizun objektiboak**

Oinarri hauetan deskribatutako eta diruz lagundu daitezkeen jarduketetarako, aurrekontu babesgarrian sartuko da, egikaritze kostuak eta dagokion BEZaz gain, esku-hartzea burutzeko beharrezko instalazio eta elementuen kostua, bai eta ordainsari teknikoak eta obrarako udal baimenari lotutako gastuak ere.

**Bosgarrena. — Laguntzen zenbatekoak eta mugak**

Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzeko diruz lagundu daitezkeen jarduketetan, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarriaren gainean % 30eko portzentajea aplikatuko da, esku-hartze bakoitzeko gehienez ere 5.000 euro izango direlarik.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira sustatzaileek lor ditzaketen beste edozeinek, beti ere, gainfinantziatorik ez badago.

**BI DIRULAGUNTZETARAKO XEDAPEN KOMUNAK****Lehena. — Aurrekontu Kontsignatzea**

Dirulaguntza hauen deialdiak edo deialdiek zehaztuko dute horietako bakoitzari esleitutako aurrekontu-hornidura.

**Bigarrena. — Eskariak aurkezteko epea****2.1. Laguntzen eskaera aurkeztu aurreko jarduketak**

Laguntzak formalki eskatu aurretik, eta aurkeztutako dokumentazioa Oinarri haue-tara modu egokian doituta aurkeztu dadin, Uretamendiko Opengelarekin kontaktuan ja-rri beharko da. Opengela adieraziko du nola eskatu behar diren eskaintza teknikoak, ondoriozko proiektuak dirulaguntzak lortzeko beharrezko xehatze eta betekizun guztiak jaso ditzan.

Aholkularitza eta laguntza eskaera oro uretamendiog@gmail.com posta elektroni-koaren bidez edo 628.900.181 telefonora deituta bideratu daiteke.

Deialdiak, atal honetan gomendatutakoaz gain, aurretiko laguntza eskaera egiteko beste modu batzuk ezarri ahalko ditu.

**2.2. Eskariak aurkezteko lekua eta modua**

Oinarri haue-tan araututako dirulaguntza eskaerak Uretamendi auzoko 36.ean koka-tuta dagoen Opengela-Uretamendi bulegoan (Udaltegia, antzinako eskolak) aurkeztuko dira.

Opengela-Uretamendi bulegoarekin kontaktua egiteko moduak hauek dira:

- Posta elektronikoa: uretamendiog@gmail.com
- Telefonoa: 628 900 181.

Dokumentazioa posta elektronikoz aurkezten bada, hau nahitaez «.pdf» edo «jpg» formatuan erantsi beharko da. Beste formatu batean aurkeztutako edozein dokumenta-zio ez aurkeztutzat joko da.

Laguntzen eskaria eginda, Surbisari baimena ematen zaio izaera pertsonaleko da-tuen tratamenduari ekiteko, dagokion legediarekin bat eginez, eta, tramitazio honetarako behar izanez gero, beste Administrazio Publiko Batzuekin Datuen Bitartekaritza Platafor-matik edo Udal Administrazioetik beretik beharrezko informazioa lortzeko ere bai.

Eskarian adierazitako posta elektronikoen helbidea erabiliko da espedientetik sor-tutako izapideei buruzko jakinarazpenak egiteko.

Deialdiak dirulaguntzak eskatzeko beste modu batzuk ezarri ahalko ditu.

**2.3. Aurkezteko epea**

Eskariak aurkezteko epea dagokion Deialdian ezarritakoa izango da. Horren laburpe-na, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin 2025 urteko Deialdian ezarritako eskaera epea agortutakoan, hala badagokio, 2026 urtean egin litekeen deialdian izapidetzekoak izango diren eskaera berriak onartu-ko dira.

**2.4. Erantsi beharreko dokumentazioa**

Opengela Uretamendi bulegoetan, Surbisaren bulegoetan eta bere web orrian jaso daitekeen «Eskaera eta Erantzukizunpeko adierazpena» inprimakia behar bezala beteta eta Jabekideen Elkartearen ordezkariak sinatua aurkeztuko da eta, horrekin batera, ho-nako dokumentuen fotokopiak ere bai:

Proiektu teknikoen idazketa

- a) Jabekideen Elkartearen ordezkariaren NANA.
- b) Jabekideen elkartearen IFK.
- c) Jabekideen Elkartearen akta edo aktak, zeinetan:
  - Eskaera aurkezten duen ordezkaria izendatzen den.
  - Proiektua idazteko ordainsari teknikoen aurrekontua onesten den.
  - Dagokion dirulaguntza eskatzea onesten den.



- d) Jabekideen Elkartearen eta Proiektua egiteaz arduratuko den talde teknikoaren arteko kontratua, non eskatutako proiektuaren xedea islatu eta xehatzen den. Ez da diruz lagunduko kontratuan esleitu gabeko zenbatekorik.
- e) Kontratua esleitu aurretik eskatutako ordainsari teknikoaren hiru eskaintza.
- f) Dirulaguntza sartuko deneko kontu zenbakiaren eta horren titulartasunaren ziurtagiria.

Kontu-zenbakiaren titulartasuna dirulaguntza eskatzen duen Komunitate edo mankomunitatearena ez denean, kontuaren titularra den pertsonaren aldeko endosu dokumentua erantsiko da, behar bezala sinatuta.

Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzea.

1. Ordezkariek bere NANaren fotokopia eta Jabekideen Elkartearen IFKren edo ordezkatzen duen entitatearen fotokopia aurkeztu beharko du.
2. Jabekideen Elkartearen akta edo alde interesdun guztiek sinatutako Akordioa, zeinetan burututako lanak onesten diren; edo kontratatu beharreko dokumentuan idazketa, zeinetan onetsitako aurrekontuaren zenbatekoa jasota egongo den.
3. Diruz lagundu daitekeen jarduketa obra egikaritzea denean, eta bizitegi eraikin batean egitekoa denean, esku-hartzearen xede den / diren eraikinen/ eraikinen Azterketa Teknikoaren Txostenaren kopia. Txostena aurkeztu dela ziurtatzen duen zigilua ere izan beharko du.
4. Kontu-zenbakia eta horren titulartasuna justifikatzen duen dokumentua.
5. Emandako udal obra lizentziaren kopia. Lizentzia hori behar ez bada, dagokion aurretiazko jakinarazpena. Ez dira onartuko obrak egikaritu ostean lortutako lizentziak edo Obraren Aurretiazko Jakinarazpenak.
6. Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren Proiektu oniritziduna eta amaierako ziurtapenaren kopia.
7. Eraikina edo jarduketak atxikitako zonaldea obrak hasi aurretik nola zeuden edo obrak amaitutakoan nola geratu diren erakusten duten koloretako argazkiak.
8. Kostuen justifikazio dokumentala: Burututako esku-hartzearen faktura banakaturia (banakaturia ez badago aurrekontu xehatua eta faktura aurkeztuko dira), udal tasa eta zergena eta profesionalen ordainsariena, baldin baleude. Ez da zenbatekorik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.

#### **Hirugarrena. — Dokumentazioa egiaztatzea**

Baldin eta espedientearen tramitazio aldian aurkeztutako eskarian nolabaiteko akatsa, zehaztasunik eza edo erantsi beharreko dokumenturen baten falta dagoela ikusiko balitz, eskaera-inprimakian agertzen den eskarigileari jakinaraziko litzaioke, eta hamar egun balioduneko gehieneko epea emango litzaioke akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa ekartzeko, eta esango zaio hala egiten ez badu eskariari ezezkoa emango zaio eta horretarako eragina duen jakinarazpena igorriko zaio.

Surbisak beharrezko duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahalko dio eskarigileari, dirulaguntza emateko eta etxebizitza edo eraikinari bisita tekniko bat egingo dio laguntza emateko eta dokumentu tekniko edo laguntza teknikoaren kontratua eskatutako xedeetarako egokia den zehazteko edo bideragarritasun tekniko edo ekonomikoa duela justifikatzeko.

#### **Laugarrena. — Eskaria onestea eta laguntzak ematea**

Dirulaguntzak lehiaketarik gabeko prozedurako erregimenean onetsiko dira, aurrekontu kreditua agortu arte, eta aurkeztutako eskarien aurkezpen-ordena jarraituko da horretarako.



Aurrekontu diru-hornidura amaitutakoan, aurkeztutako baina ebazpenaren zain dauden eskariak hurrengo deialdi edo aurrekontu-zabalpenean sartuta geratuko dira, eskaria berriro egin beharrik gabe.

Eskaria osoki aurkeztu eta lau hilabeteko epean, Surbisako presidentziak, bertako teknikariek eginiko proposamena ikusita, dagokion dirulaguntza eman ala ez emateari buruzko erabakia hartuko du. Baldin-eta laguntzak emateko erabakia hartzen bada, horren zenbatekoa adieraziko du, dirulaguntza justifikatzeko gehieneko epea adierazita; eta ukatzen bada, horretarako arrazoiak adieraziko dira.

Epea amaitu eta jakinarazpenik egon ez bada, erabakia ezezkoa dela ulertuko da isiltasanagatik, berariaz erabakitzeko betebeharraren kaltetan izan gabe.

Eskatutako dirulaguntzak emateko edo ez emateko erabaki horren aurka errekurtsoa aurkeztua ahalko da, Laguntza espedientearen erabakiaren jakinarazpena jaso eta bihar munetik hasi eta hilabeteko epean. Surbisako Presidentetzak ebatziko du dagokiona.

#### **Bosgarrena. — Diruz lagundutako jarduketan kontrola eta justifikazioa**

Surbisako teknikariek dokumentu teknikoak berrikusi ahalko dituzte eta proiektutako jarduketan edo birnaturalizazio jarduketan kokapena bisitatu ere bai, diruz lagundutako jarduketan espedientearen aurreikusitako moduan burutu diren egiaztatzeko.

#### **Seigarrena. — Dirulaguntza ordaintzea**

Oro har, dirulaguntzaren onuradunaren izenean dagoela adierazi den kontu-zenbakian sartuko da dirulaguntza, behin laguntza onartu zaiola edota jarduketan burutzapena justifikatu dela egiaztatutakoan.

Jarduketan burutzapena justifikatzeko, espedientearekin batera honako dokumentazio hau erantsi beharko da dagokion Deialdian ezarritako gehieneko epea agortu aurretik:

Proiektu teknikoaren idazketa

- Jabekideen Elkartearen aktaren fotokopia, zeinetan Elkarteari ematekoa zaion dirulaguntzaren xedea den proiektu idatzia aurkeztu izana ziurtatzen den eta obrak egiteko dauden laguntzak eta, hala badagokio, jarraitu beharreko urratsak adierazi diren. Surbisak betekizun honetatik aske utz dezake baldin-eta komunitateko kideei alderdi horiek beste era efektibo batera jakinarazi zaizkiela egiaztatzen bada edo jakinarazte hori geroratu egiten bada, Surbisaren adostasuna izanda.
- Diruz lagundutako eta oniritzia jaso duen proiektuaren ale oso bat.
- Kostuen justifikazio dokumentala: Ordainsari teknikoaren fakturak eta bisaren gastuak.

Ez da zenbatekorik diruz lagunduko eskaerarekin batera horren faktura edo ziurtagiria espedientearen erantsi ez bada eta ez da eskaria egin ostean aurkeztutako besterik onartuko.

Erabiltzen ez diren espazioak birnaturalizatzea

Dirulaguntzaren eskaera behin jarduketa burututakoan aurkeztuko denez gero, dirulaguntzen ordaintzea espedientearen onetsi ostean formalizatuko da, beste dokumentaziorik aurkeztu beharrik izan gabe.

#### **Zazpigarrena. — Dirulaguntzaren, itzultzeen eta ezeztatzeen baldintzen aldaketa**

7.1. Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira —honen xedea betetzat ematen denean eta, kasua bada, beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako laguntzak batera jaso direnean— laguntza emateko erabakia aldatu egin ahalko da.

7.2. Laguntzaren onuradunak hartutako konpromisoak ez dituela bete egiaztatzen bada, laguntzak baliogabetzeko prozedurari ekingo zaio eta horiek itzultzeko eskatuko da.



### 7.3. Laguntzak ezeztatzea.

Aitortutako laguntzak ezeztatu edo baliogabetu egin ahalko dira, aurretik dirulaguntzen eskarigileak eskarian emandako posta-helbidean edo, hori eman ez bada, eskarian adierazitako helbidean interesatuari jakinarazita (bi saiakera egingo dira), datuak faltsuak direnean edo araudi honetan edo nahiz laguntzen erabakian bertan jasotako edozein baldintza betetzen ez denean.

Laguntzak ezeztatuz gero, Surbisari itzuli beharko zaio jasotako zenbatekoa eta horri dagozkion interesak. Gainera, egokitu ahal zaizkion legezko ekintzak edo isunak ere sortu ahal dira.

Dirulaguntzaren onuradunek baldintzak ez betetzean izandako nahitasun-maila baliosteari ere ekin dakioke, dirulaguntzaren zenbatekoa edo itzuli beharreko zenbatekoak zein izan behar duen erabakitzeko.

Ez betetzeagatiko espedienteari hasiera ematea Surbisako Zuzendaritzari dagokio eta erabakia hartzea, Presidentetzari.

### **Zortzigarrena. — Onuradunen betebeharrak**

Laguntzen onuradunen betebeharra da:

- Oinarri hauetan ezarritako gutzia betetzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.
- Uneoro Surbisako teknikariek jarduketa babesgarriak zehazki ikuska ditzaten ahalbidetzea, eta horiekin lotuta eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztea.
- Surbisari jakinaraztea babestutako jarduketak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza batzuk jaso izana.
- Dirulaguntzaren edo murrizketaren itzulketa, baldin-eta Surbisak, Oinarri hauekin bat eginez, hala erabakitzen badu.

Surbisak, egoki irizten dituen bideak erabiliz, egiaztatu egin dezake emandako kopuruak ondo aplikatu diren helburuei dagokienez, eta, horretarako, gastua kontrolatu ahalko du eta, hala badagokio, erantzukizunak eskatu, bai eta funtsak itzul daitezen ere, laguntza emateko zioa beteta ez balego. Horretarako, onuradunak nahitaez Surbisak, laguntzen helburuaren fiskalizazio funtzioak egikaritzuz, eskatutako informazio gutzia eman beharko du.

Onuradunaren ardura da babestutako jarduketa indarren dagoen araua osoki bete dezan bermatzea, bai baldintza teknikoak, hirigintzakoak nahiz izaera zibilekoak edo bestelakoak. Surbisak ez du inolako erantzukizunik izango onuradunak arauen bat beteko ez balu.

### **Bederatzigarrena. — Publizitatea eta zabalkundea**

9.1. Herritar guztiak jakinaren ganean egon daitezen, dirulaguntzak eman edo ez emateko erabakiak, eta egon litezkeen aldaketak, Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean argitaratuko da.

9.2. Laguntzen onuradunek lagundu egin beharko dute Surbisak nahiz Eusko Jaur-laritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak Uretamendin Hiri Berroneratze Osoko Jarduketak burutzeko emandako finantzazio ekonomikoan parte hartu duela zabaltzen.

Horri dagokionez, espedientean jasotako dokumentazio teknikoa nahiz laguntzen xede diren eraikin edota espazioen argazkiak Surbisak erabilgarri izango ditu berak esku-hartu dueneko jarduketan publizitatea eta hedapena egiteko, une oro egilearen jabe-gointektuala errespetatuz.

9.3. Dirulaguntzen eskatzaileek emandako datu pertsonalak datuen babeserako indarrean dagoen legediak ezarritakoari jarraituz tratatuko dira.



## **Hamargarrena. — Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabeko guztian, eta bertan jasotakoaren aurkako ez bada, Surbisaren Bilboko bizitoki eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko 2025-2027 urteetarako dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak aplikatu ahalko dira.

Surbisari dagokio, sor daitekeen edozein zalantza egoeratan, Oinarri hauetan araututakoa interpretatzea, eta bere irizpidea izango da behin-betikoa.